

Bizar urdindun serieko hiltzailea

BREITAINIA, 1432. Frantzia eta Ingalaterraren arteko Ehun Urteko Gerra betean (berez 116 urte iraun zuena) Gilles de Montmorency-Laval, Raiseko baroia, mariskal izendatu zuten, gudu zelaian emandako zerbitzuen ordainetan. Frantziako noble familia nagusietako eta aberatsenetako baten oinordekoa zen, eta urte hartatik aurrera, aitona hil zenean, ondasun haiekin nahi zuena egiteko aukera izan zuen. Gainera, gerrak Gilles de Raisen izen ona eta ondasunak areagotu zituen. Frantziako gizonik miretsienetakoa zen orduan, Joana D'Arc-en jarraitzaile sutsua, oso fededuna, jantzia, musikazale amorratua, eskuzabala. Baina historiako serieko hiltzaile krudelenetakotzat hartzen da gaur egun.

Gaur egungo psikiatren esanetan, Gilles de Raisek joera psikopatikoak edo eskizofrenia larria zituen seguruenik. Muturreko oldarkortasuna baliagarria izan zitzaion gerra kontuetan, baina bizimodu zibilean ondasunen bidez soilik lortu zuen krimenak estaltzea. Eta ez betiko.

Plazera lortzeko dirutza xahutzen zuen baroiak. Esaterako, Poitierseko gudua antzetzeko 150 aktore kontratatu eta 80.000 koroatik gora gastatu zituen. Baina plazerik handiena haurrak eta gazteak –6 eta 18 urte bitartekoak– bahitzen, bortxatzen, torturatzen eta hiltzen lortzen omen zuen, eta horretan ere ez zuen ahaleginik aurreztu. Hark eta haren zerbitzariak Britainia osoa zeharkatu zuten hiltzailearen gustuko gaztetxoak “biltzeko”. Batzuetan indarrez eta bestetan engainuz –biktimei nahiz gurasoei etorkizun oparoa aginduz– eramaten zituzten Tiffaugeseko gaztelura. Izualdiak 1432tik 1440ra arte iraun zuen, eta zortzi urte horietan Breitanian 1.000 haur eta gazte inguru desagertu omen ziren.

Inguruko haurrak bezala, Gilles de Raisen dirutza ere urritzen hasi zen. Bere buruaz gain, inguruko asko porrotera eramán zituen, eta salaketen oihartzuna Nanteseko gotzaina-



Gilles de Rais (1404-1440), hil artean Frantziako heroia izan zen, eta ondoren historiako serieko hiltzaile nagusietakoa.

rengana iritsi zen. Bere luxuzko bizimoduari eusteko, lurrak, etxeak eta gazteluak saltzen hasi zen, eta halako batean, geratzen zitzaizkion azken gazteluetako batean, gorpu askoren arrastoak topatu zituzten. Raiseko baroia 1440ko irailaren 15ean atxilotu zuten. Torturapean eta buru nahasmenduek akuilatuta, handik hilabetera bere krimenak aitortu zituen. Eta urriaren 26an urkamen-dian hil zuten.

Haren bizar beltzak dirdai urdinxkak omen zituenez “Bizar Urdin” goitizena zuen heroi ohia krudeltasunaren paradigma bihurtu zen bat-batean. Eta 1697an Charles Perraultek serieko hiltzaile horretan oinarrituta idatzi zuen *Bizar Urdin* ipuin ezaguna. Baina, beste behin, errealitateak fikzioa gainditu zuen aise. ■



Arrastoak

Turkiako Errepublikak 90 urte

1922KO AZAROAN Otomandar Inperioko Mehmed VI.a sultanak (1861-1926) abdikatu egin zuen, eta Mustafa Kemal buru zuen Turkiako Asanblea Nazionalak sultangoa abolitu zuen. Mehmed Otomandar Inperioko azken sultana izan zen eta, horrenbestez, Turkiako Errepublika egituratzen hasi zen. Errepublika handik hamaika hilabetera ezarri zuten ofizialki, 1923ko urriaren 29an, eta Mustafa Kemal *Atatürk* lehen presidente izendatu.

Lehen Mundu Gerrak eragin zuen sultangoaren beheraldia. Otomandar Inperioa galtzaile izan zen eta sultangoa asko ahuldu zuen horrek. Gerra galdu eta berehala bildu zen Kongresu Nazionala lehenengoz. Eta Greziaren aurkako Independentzia Gerra irabazi ondoren, errepublikano indartuek babes zabala lortu zuten, zabalegia sultangoari eusteko. ,



Mehmed VI.a Vahdettin, Turkiako azken sultana. Duela 90 urte abdikatu behar izan zuen.